

1 ZER DA?

NAFARROAKO RURAL KUTXAren GIZARTE EKINTZAK “BIKAIN BEKA” ekimena antolatzen du, 2024-2025 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko edo Errioxako Autonomia Erkidegoko ikastetxe ofizial batean Lanbide Heziketako erdi-mailako ikasketak edo Batxilergoko ikasketak amaitu eta ikasgai guztiak gainditu dituzten gazteei zuzenduta.

Gazteen prestakuntza akademikoa sustatzea eta ikasteko egiten duten ahalegina saritzea dira helburuak; horretarako, ikasketaldian lagun izanen gaituzte eta emaitza onak lortzeko pizgarriak eskaintzen dizkiegu, etorkizunean lanerako zubi izanen diren aldetik.

Ikasleak 2024-2025 ikasturteko azken kalifikazioetan ateratzen duen bikain bakoitzeko 100 euroko laguntza emanen diogu, gehieneko muga hiru bikain izanik ikasle bakoitzeko (gehienez ere 300 euro), betiere Oinarri hauetan zehaztutako baldintzak eta epeak betez gero.

2 NORK HARTZEN AHAL DU PARTE?

Deialdi honetan parte hartzen ahal dute baldintza hauek betetzen dituzten ikasleek:

- 30 urte edo gutxiago izatea eskaera aurkezteko unean.
- Nafarroako Foru Komunitateko edo Errioxako Autonomia Erkidegoko ikastetxe ofizial batean 2024-2025 ikasturtean honako maila hauetako ikasgai guztiak gainditu izana:
 - Batxilergoko 2. maila.
 - Lanbide Heziketako erdi-mailako 2. maila.
- Ebaluatutako ikasgaiaren batean bikain bat edo gehiago lortu izana egiaztatzea.

NAFARROAKO RURAL KUTXAko bezeroei eta bezero ez direnei zuzentzen zaien aldetik, beka NAFARROAKO RURAL KUTXAko kontu batean ordainduko da, eta ikasleak izan behar du kontuaren titular.

3 EPEAK ETA DATAK

- Eskaera egiteko epea: 2025/06/02tik 2025/09/30era.
- Ordainketa kontuan: Erakundeak eskaera onartzen duen egunetik zenbatzen hasita, gehienez 30 egun naturaleko epean ordainduko da beka.

4 NOLA ESKATU?

Bezeroa bazara, zoaz Nafarroako Rural Kutxako zure bulegora eta egin ezazu Bikain bekaren eskaera; zure espediente akademikoa (PDF formatuan) zein helbide elektronikotara bidali behar duzun adieraziko dizute.

Bezeroa EZ bazara:

1. Zoaz Nafarroako Rural Kutxako bulego batera eta bezero gisa alta hartu beharko duzu; alta hartutakoan, Bikain bekaren eskaera egin ahal izanen duzu, eta zure espediente akademikoa (PDF formatuan) zein helbide elektronikotara bidali behar duzun adieraziko dizute bulegoan. Adingabeek legezko tutoreekin batera joan beharko dute.
2. Bezero gisa alta hartzeko beste bide bat ere badugu: [online prozesua \(Egin zaitetz Bezero\)](#); prozesua burutu ondoren, webgunean dugun formularioa bete beharko duzu, eta espedientea PDF formatuan erantsi. Bezero gisa online prozesuaren bitartez alta hartu ahal izateko 18 urte beteak izan behar dituzu.

Nola deskargatu espediente akademikoa?

Nafarroan, [Educa](#) plataforma ofizialean sartu behar da, eta [eskuliburu honetako argibideei jarraitu](#). Garrantzitsua da espediente akademiko originala .pdf formatuan deskargatuta bidaltzea. Ez da onartuko eskaneatuta edo beste aplikazio batzuekin editatuta dagoen espedienterik. Paperean ere ez da onartuko.

Errioxan, [Racima](#) plataforma ofizialean sartu behar da. Garrantzitsua da espediente akademiko originala .pdf formatuan deskargatuta bidaltzea. Ez da onartuko eskaneatuta edo beste aplikazio batzuekin editatuta dagoen espedienterik. Paperean ere ez da onartuko.

Ikastetxeak ez badu eskaintzen espediente akademikoak deskargatzeko plataforma ofizialerako (Educa eta Racima) sarbiderik, ikastetxeko idazkaritzak egindako eta egiaztatutako espedienteak onartuko dira (**zigilatuta eta sinatuta**).

5 ESPEDIENTE AKADEMIKOAREN BALDINTZAK

Ezaugarri hauek guztiak betetzen dituzten kalifikazio ofizialak onartuko dira, ez besterik:

- 2024/25 ikasturteko notak izanen dira, Nafarroako Foru Komunitateko edo Errioxako Autonomia Erkidegoko ikastetxe ofizial bateko Batxilergoko 2. mailari edo Lanbide Heziketako erdi-mailako 2. mailari dagozkionak.
- 2024/25 ikasturteko azken notetan 9ko edo 10eko kalifikazioa izan behar du.
- Ikasturteko azken notak (azken ebaluazioa) hartuko dira kontuan, ez bestelako ebaluazioak: hiruhilekoak, partzialak eta abar.
- 2024-2025 ikasturteko espediente akademiko ofiziala aurkeztu behar da, Educa (Nafarroa) edo Racima (Errioxa) plataformaren bitartez egindakoa.
- Notak PDF formatuan aurkeztu behar dira, plataforma ofizialetik zuzenean deskargatuta. Edukia argi eta garbi ikusi behar da. Pantaila-argazkiak eta argazkiak ez dira onartuko. Paperezko espedienterik ere ez da onartuko.
- Datu hauek oso-osorik ikusi behar dira: ikaslearen izen osoa eta NAN zenbakia, egindako ikasketaren titulazioa, kalifikazioa zein ikasturtetan atera den, ikasgai mota eta lortutako kalifikazioa (zenbakizkoa).
- Nafarroako Rural Kutzak, egoki irizten dion kasuetan, ikastetxeak zigilatutako ziurtagiria eskatzeko eskubidea izanen du.

6 BESTE BALDINTZA BATZUK

“BIKAIN BEKA” NAFARROAKO RURAL KUTXAKO bezeroek eta bezero ez direnek eskatzen ahal dute, baina ordainketa NAFARROAKO RURAL KUTXAn irekitako kontu batean eginen da, eta beka eskatzen duenak izan beharko du kontuaren titular.

Eskaerak ez dira aintzat hartuko, baldin eta eskaera aurkezten duena(k):

- Kontua ordainketak jasotzeko blokeatuta badu, dokumentazioa eguneratuta ez duelako edo beste arrazoiren batengatik.
- Ez baditu betetzen Oinarri hauetan zehaztutako baldintza eta epe guztiak.

7 KONTSULTAK ETA ZALANTZAK

Kontsulta, zalantza edo iradokizunen bat izanez gero, “Kontaktatu” atala aurkituko duzu webgunean: <https://www.cajaruraldenavarra.com/eu/becasobresaliente>, edo jo ezazu NAFARROAKO RURAL KUTXAREN edozein bulegotara.

8 AZKEN ARGIBIDEAK

“BIKAIN BEKA” laguntza jaso ahal izateko, Oinarri hauetan zehaztutako baldintza guzti-guztiak bete behar dira.

NAFARROAKO RURAL KUTXAK aztertuko du Oinarri hauetan zehaztu diren baldintza guzti-guztiak betetzen ote diren eta aurkeztutako dokumentazioa zuzena eta egiazkoa ote den; eta erakundeak hartzen duen erabakia apelaezina izanen da.

Erakundeko bezerotzat onartua izan eta ekintza hau gauzatzeko aukera ematen duten kontuak ireki ahal izateko, NAFARROAKO RURAL KUTXAREN kontuak irekitzeko protokoloa bete beharko da. Betetzen ez bada, ez da laguntza jasoko.

Ekimen honen oinarriak <http://www.cajaruraldenavarra.com/eu/becasobresaliente> webgunean daude eskura, nahi duen ororen jakingarri, eta oinarri horiek izanen dira parte-hartzaileei informazioa emateko bide bakarra; ez da ahozko beste informaziorik onartuko.

Ekimen honetan parte hartzeak erran nahi du NAFARROAKO RURAL KUTXAREN oinarriak eta irizpideak onartzen direla, beka hauekin lotutako auzi edo desadostasun ororen ebazpenari dagokionez.

9 DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna? Zure datuen tratamenduaren arduraduna Caja Rural de Navarra, S.C.C. erakundea da (helbidea: Foru plaza 1, 31003 PK, Iruñea). Datuak babesteko ordezkariekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoa: protecciondedatos@crnavarra.com.

Zertarako tratatzen dira datuak? Datuak NAFARROAKO RURAL KUTXAREN GIZARTE EKINTZAREN BIKAIN BEKA ekimenean parte hartzeko erabiliko dira, baita onuradunei beka emateko ere.

Deialdi hau amaitu eta, gehienez ere, bi hilabetez gordeko dira zure datuak.

Zergatik tratatzen dira datuak? – Legitimazioa. Aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako baimena eman duzunez, baimen horretan oinarrituta tratatuko dira zure datu pertsonalak.

Nortzuk dira zure datuen hartzaileak? Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak behartu ezean. Zerbitzuren baten hornitzaileak ere izaten ahal dira datuen hartzaile, baina datuen babesaren arloko agintariekin onartutako ereduak betetzen dituzten kontratuen bidez eta dagozkion bermeekin egingen da hori beti.

Zer eskubide dituzu? Datuen titular zaren aldetik, datuak eskuratzeko, eguneratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeke eskubidea duzu, baita beste eskubide batzuk ere; eskubide horiek baliatzeko Caja Rural de Navarra S.C.C. erakundera jo behar duzu (Foru plaza 1, 31003 PK, Iruñea), dela gure bulegoren batean, dela helbide elektroniko honetara idatzita: protecciondedatos@crnavarra.com. Gogoan izan zure NANaren edo legezko beste identifikazio-agiriren baten kopia atxiki beharko duzula.

Nork bermatzen ditu zure eskubideak? Nori aurkeztu erreklamazioa? Erreklamazio bat aurkeztu nahi baduzu edo datu pertsonalen tratamenduari buruzko araudiaren gaineko informazio gehiago lortu nahi baduzu, Espainiako agintari eskuduna Datuak Babesteko Espainiako Agentzia da (Jorge Juan, 6 28001-Madrid).